

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA  
**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA  
ETA PALEONTOLOGIKOA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE  
**Programa:** 336700 PATRIMONIO  
ARQUEOLÓGICO Y  
PALEONTOLÓGICO

### SAILAREN MEMORIA

### MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

#### I. MEMORIA

Ondare arkeologikoaren eta paleontologikoaren kudeaketa Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak definitzen du, eta 3. artikuluan ezartzen duenez, "Hauek dira foru-erakundeek tokian tokiko lurraldean dituzten eginkizunak:

- a) *Euskal kultura-ondarea kontserbatzeko, hobetzeko eta zaharberritzeko edo, hala badagokio, indusketa-lanak egiteko emandako arauak garatzea eta gauzatzea.*
- b) *Babestutako kultura ondasunen gaineko esku hartzeak baimentzea, lege honetan ezarritakoaren arabera.*
- c) *Euskal kultura ondarea osatzen duten ondasunetan egindako jarduketak ikuskatzea, lege honetan ezarritakoaren arabera.*
- d) *Aurri-deklarazioaren espedientea ebatzi aurretiko txostena egitea.*
- e) *Euskal kultura-ondarearen kontserbazioa eta zaharberritzea sustatzeko neurri ekonomikoak bultzatzea.*
- f) *Euskal kultura-ondarea mantentzeko, hobetzeko eta sustatzeko pizgarri fiskalak arautzea.*
- g) *Lurralde historikoan kokatutako kultura ondarea hedatzea.*
- h) *Lege honetan berariaz aitorritako gainerako eskumenak".*

Arabako Foru Aldundiak eremu horretan betetzen duen zeregina Lurralde Historikoen 27/1983 Legearen 7. artikulutik eratorritako lege eskumenei dagokie. Artikulu horrek foru organoei ematen die erakunde komunen arauak garatzeko eta betearazteko eskumena, ondare historiko artistiko monumental eta arkeologikoa kontserbatzeko, hobetzeko, zaharberritzeko edo, hala badagokio, induskatzeko.

Aurrekontu programa hau kudeatzen duen

#### I. MEMORIA

La gestión del patrimonio arqueológico y paleontológico viene definida por la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de *Patrimonio Cultural Vasco*, la cual, en su artículo 3 establece que "*corresponde a las instituciones forales en sus respectivos territorios históricos:*

- a) *El desarrollo normativo y ejecución de la conservación, mejora, restauración o, en su caso, excavación del patrimonio cultural vasco.*
- b) *Autorizar las intervenciones sobre bienes culturales protegidos, de acuerdo con lo establecido en la presente ley.*
- c) *Inspeccionar las actuaciones realizadas en bienes integrantes del patrimonio cultural vasco, de acuerdo con lo establecido en la presente Ley.*
- d) *Realizar el informe preceptivo previo a la resolución del expediente de declaración de ruina.*
- e) *Impulsar las medidas económicas de fomento para la conservación y restauración del patrimonio cultural vasco.*
- f) *Regular los incentivos fiscales destinados al mantenimiento, mejora y promoción del patrimonio cultural vasco.*
- g) *Divulgar el patrimonio cultural localizado en el territorio histórico.*
- h) *Las demás competencias reconocidas expresamente en esta ley."*

El papel de la Diputación Foral de Álava en este ámbito responde a las competencias legales derivadas del artículo 7 de la Ley 27/1983, de *Territorios Históricos*, que otorga a los órganos forales el desarrollo y la ejecución de las normas de las instituciones comunes en *conservación, mejora, restauración o, en su caso, excavación del Patrimonio Histórico Artístico Monumental y Arqueológico.*

La unidad administrativa que gestiona este programa

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA  
**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA  
ETA PALEONTOLOGIKOA

administrazio unitatea Museo eta Arkeologia Zerbitzua da.

Eskumen horien esparruan, lortu beharreko funtsezko hiru helburu daude ondare arkeologiko eta paleontologikoari dagokionez:

1. **Araudia garatzea eta haren kudeaketa publikoa gauzatzea, lege esparrua aplikatuz haren kontserbazioa bermatze aldera.**
2. **Ondarea ikertu, kontserbatu eta zabaltzeko Arabako Foru Aldundiak berak garatutako programak bultzatzea eta sustatzea.**
3. Jarduera horiei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea, beste toki erakunde batzuek, erakunde zientifikoek, ikerketa taldeek edo norbanakoek sustatzen dituztenean.

### 1. HELBURUA.- Arabako ondare arkeologikoa eta paleontologikoa kudeatzea

Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren ezinbesteko zereginetako bat da, eta BIBAT-Arabako Arkeologia Museoko lantalde teknikoaren ardura da.

Lan hori legezko berme guztiekin egin ahal izateko, beharrezkoa da **Arabako arkeologia eta paleontologia jardueren araudi** berria restatzen amaitzea, gaur egun Idazkaritza Teknikoak berrikusteko prozesuan dagoena.

Arlo horretan bi oinarritzko jarduera bloke hauek daude:

- **Txosten arkeologikoak egitea, obrek eta proiektuek ondarean izan ditzaketen eraginak zehazteko, eta neurri aringarriak ezartzea, horien eragina minimizatzeke eta ukitutako kultura ondasunak behar bezala babesten direla bermatzeko.** Horrela, urtean zehar babes arkeologikoa duten eremuetan eragina izan dezaketen 480 espediente eta kontsultaren txostenak egin dira (hirigintza, lurralde edo ingurumen izaerakoak, hainbat obra lizentzia, hirigune historikoetako eraikuntzak eta birgaitzeak, linea elektrikoak, ur hornidurako ureztatzeak, plan hidrológicoak, obra eta zerbitzuen foru plana, lurraldearen

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE  
**Programa:** 336700 PATRIMONIO  
ARQUEOLÓGICO Y  
PALEONTOLÓGICO

presupuestario es el Servicio de Museos y Arqueología.

En el marco de estas competencias, existen **tres objetivos fundamentales** a alcanzar en lo referente al Patrimonio Arqueológico y Paleontológico:

1. **Desarrollar la normativa y ejecutar su gestión pública** en aras a garantizar su conservación en aplicación del marco legal.
2. Impulsar y promocionar los **programas de investigación, conservación y difusión patrimonial desarrollados por la propia Diputación Foral de Álava.**
3. **Apoyar técnica y económicamente** esas actividades cuando son promovidas por otras entidades locales, instituciones científicas, equipos de investigación o particulares.

### OBJETIVO 01.- Gestionar el Patrimonio arqueológico y paleontológico de Álava

Es una de las labores fundamentales que ocupa al Servicio de Museos y Arqueología, y su desarrollo es responsabilidad del equipo técnico del BIBAT-Museo de Arqueología de Álava.

Para poder llevar a cabo esta labor con todas las garantías legales, es preciso culminar el nuevo **Reglamento de Actividades Arqueológicas y Paleontológicas de Álava** que actualmente se haya en proceso de revisión por la Secretaría Técnica.

Existen a este respecto, dos bloques de actividades fundamentales:

- La emisión de **informes arqueológicos** para determinar posibles afecciones patrimoniales de obras y proyectos, y la determinación de medidas paliativas para minimizar su impacto y garantizar una adecuada protección de los bienes culturales afectados. Así, a lo largo del año se han informado **480 expedientes y consultas** de todo tipo con posible incidencia en o sobre zonas con protección arqueológica (de carácter urbanístico, territorial, o medioambiental, licencias de obras diversas, construcciones y rehabilitaciones en cascos históricos, líneas eléctricas, regadíos abastecimientos de agua, planes hidrológicos, plan foral de obras y servicios, directrices de

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA  
**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA  
ETA PALEONTOLOGIKOA

antolamendurako jarraibideak, lurralde planak, bideen desbideratzeak eta seinaleak, azpiegitura eta komunikazio lanak, etab.).

- Profesional eta ikertzaileei emandako baimen arkeologiko eta paleontologikoak kudeatzea eta izapidetzea (120 baimen 2023an), era guztietako jarduketak egiteko, bai obra proiektuekin lotutakoak, bai ikerketa programekin lotutakoak, bai kudeaketa horrekin zerikusia duten beste jarduera batzuekin lotutakoak (finantzaketarako dirulaguntzen programak, adibidez).

Gainera, partikularrek eta enpresek legez aginduta egin beharreko arkeologia lanen kostuaren % 50 finantzatzeko legeriak ezartzen dituen laguntzak kudeatzen dira (6/2019 Legearen 67. artikulua). 2023an dirulaguntzen 9 espediente izapidetu dira. Horietatik zortzi partikularrenak dira eta bat enpresena. Erabilgarri dagoen aurrekontuaren % 100 inbertitu da.

### 2. HELBURUA.- AFak ondare arkeologikoa eta paleontologikoa ikertzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko dituen proiektu propioak bultzatzea eta sustatzea

Helburu honen ardatza dugu AFak zuzenean sustatzen dituen proiektuei jarraipena ematea, kultura ondasun arkeologikoak, batez ere, kategoría berezikoak, kontserbatu eta zabaltzeko.

#### 2.1. ekintza. Iruña-Veleia.

2023an, Iruña-Veleia biziberritzeko eta garatzeko proposamenean (2022-2025) definitutako lanei jarraipena eman zaie. Proposamen hori garatzeko, Europako Next Generation funtsak, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza eta Arabako Foru Aldundiaren funts propioak daude. Horrela, lau ardatz nagusi lantzen jarraitu da:

##### *Ikerketa:*

- Aztarnategiari buruzko ikerketa ahozko iturrietatik abiatuta.
- Iruña-Veleiako dokumentazioa kokatzea,

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE  
**Programa:** 336700 PATRIMONIO  
ARQUEOLÓGICO Y  
PALEONTOLÓGICO

Ordenación del Territorio, Planes Territoriales, desvíos de caminos y señalizaciones, obras de infraestructura y comunicación, etc.).

- La gestión y tramitación de las **autorizaciones arqueológicas y paleontológicas** concedidas a profesionales e investigadores (**120 autorizaciones** en 2023) para realizar todo tipo de actuaciones, tanto vinculadas a proyectos de obra como a programas de investigación, así como otras actividades derivadas y relacionadas con dicha gestión (programas de subvenciones para su financiación, por ejemplo).

Además, se gestionan las ayudas que la legislación establece (art. 67 de la Ley 6/2019) para financiar a particulares y a empresas el 50% del coste de las actuaciones arqueológicas que deban ejecutar por prescripción legal. En 2023 se han tramitado 9 expedientes de subvenciones de los que ocho han correspondido a particulares y uno a empresas, invirtiéndose en ello el 100% del presupuesto disponible.

### OBJETIVO 2.- Impulsar y promocionar proyectos propios de DFA de investigación, conservación y difusión del patrimonio arqueológico y paleontológico

La actividad se centra en dar continuidad a los proyectos que promueve directamente la DFA para la conservación y difusión de Bienes Culturales arqueológicos, especialmente los de Categoría Especial.

#### Acción 2.1. Iruña-Veleia.

En el año 2023 se ha dado continuidad a los trabajos definidos en la *Propuesta de revitalización y desarrollo de Iruña-Veleia 2022-2025*. Para el desarrollo de dicha propuesta se cuenta con fondos europeos Next Generation y subvención del Gobierno Vasco y fondos propios de la Diputación Foral de Álava. Así se ha continuado trabajando en cuatro grandes ejes:

##### *Investigación:*

- Investigación sobre el yacimiento a partir de fuentes orales.
- Localización, digitalización y transcripción de la

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA

**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA  
ETA PALEONTOLOGIKOA

digitalizatzea eta transkribatzea hainbat eskuizkribu eta artxibotan.

- Harresia kontserbatzeko lanei lotutako arkeologia indusketako lanak.
- Material metalikoa eta lehengo indusketa kanpainetatik datozen beste material batzuk berrikusi eta inbentariatzea.

### *Kontserbazioa eta sendotzea:*

- Iruña-Veleiako harresiko O.01 eta O.11 kuboen arteko obrak. Lan horiek indusketa lan puntualekin eta lan guztien kontrol arkeologikoarekin lotuta daude.
- Pompeia Valentina domuseko eta Errosetoidun mosaikoaren domuseko mosaikoak garbitu eta zaharberritzea, eta horien azpiko zisternak eta 12. sektoreko zisterna garbitu eta sendotzea.
- Bidea konpontzea eta elementu degradatzaileak kentzea aparkaleku ingurutik Trespondeko zubiraino.
- Aparkalekua konpontzea, legarrak ekarrita eta aglomeratuta. Oinezkoentzako pasabide bat prestatu da, eta seinale, oztopo zutoin eta bizikleta aparkaleku berriak jarri dira.
- Material arkeologikoen argazkiak ateratzea
- Oinarri topografikoen sarea eta beharrezko aurretiazko azterlanak diseinatzea eta gauzatzea.
- Induskatutako eremuak garbitzea eta mantentzea.

### *Interpretazioa:*

- Iruña-Veleiako macellumaren faseen planimetriak definitzea.
- Iruña-Veleiako ondare naturalari buruzko gida.
- Museografia hobetzea.
- Iruña-Veleiako grafito falsutuei buruzko erakusketa baterako edukiak prestatzea.
- Arkeologia ilustrazioak egitea.

### *Hedapena eta programa soziala:*

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE

**Programa:** 336700 PATRIMONIO  
ARQUEOLÓGICO Y  
PALEONTOLÓGICO

documentación referente a Iruña-Veleia en diversos manuscritos y archivos.

- Trabajos de excavación arqueológica vinculados a las obras de conservación de la muralla.
- Revisión e inventariado de material metálico y otros procedentes de campañas de excavación antiguas.

### *Conservación y consolidación:*

- Obras entre los cubos O.01 y O.11 de la muralla de Iruña-Veleia. Estos trabajos llevan asociados trabajos puntuales de excavación y el control arqueológico de toda la obra.
- Limpieza y restauración de los mosaicos de la Domus de Pompeia Valentina y de la Domus de los Rosetones, además de la limpieza y consolidación de las cisternas bajo estos y de la cisterna del sector 12.
- Arreglo del camino y eliminación de elementos degradantes desde la zona del aparcamiento hasta el puente de Trespuentes.
- Arreglo del aparcamiento, con el aporte y aglomerado de gravas, se ha habilitado un paso de peatones y se han instalado nuevas señales, bolardos y aparca-bicis.
- Fotografiado de materiales arqueológicos
- Diseño y materialización de red de bases topográficas y estudios previos necesarios.
- Limpieza y mantenimiento de las zonas excavadas.

### *Interpretación:*

- Definición de planimetrías de las distintas fases del macellum de Iruña-Veleia.
- Guía sobre el patrimonio natural de Iruña-Veleia.
- Mejora de la museografía.
- Preparación de contenidos para una exposición sobre los grafitos falsificados de Iruña-Veleia.
- Realización de Ilustraciones arqueológicas.

### *Difusión y programa social:*

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA  
**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA  
ETA PALEONTOLOGIKOA

- Iruña-Veleiako komunikazio plana ezartzea: Sare sozialak eta newsletter.
- Kaleko erakusketa bat diseinatu eta ekoiztea.
- Historia berreraikitze saioak.
- Audiogidak martxan jartzea.
- Iruña-Veleiako piezak digitalizatzea.
- Tour birtuala egitea.
- Aztarnategia seinaleztatzeko dokumentu teknikoa idaztea.
- Urtean zehar, gainera, jendearentzako irekiera eta doako bisita gidatuen eskaintza mantendu dira, eta, beraz, 2023an 3.395 bisitari jaso dira (2022an baino % 12 gutxiago).
- Hainbat dibulgazio ekintza puntual garatu dira Ondareari buruzko Europako Jardunaldien esparruan.

*Iruña-Veleia 2025-2035 plangintza:*

Oraindik ez da ekintza espezifikorik egin ildo horren barruan.

### **2.2. ekintza. Monumentu megalitikoak (trikuharriak, tumuluak eta menhirrak) eta haitzuloak ikertzeko eta kontserbatzeko proiektuak:**

*Sorginetxeko trikuharria:*

Hautemandako kontserbazio eta egonkortasun arazoan aurrean, kontserbazio proiektu bat jarri da abian, UPV/EHUko L.M. Martínez Torres irakaslearekin lankidetzan. Monumentuaren dokumentazio geometrikoa eguneratu da patologiak eta mugimenduak hautemateko eta ebaluatzeko, eta egonkortze lanak egin dira egituraren segurtasuna bermatzearren.

*Kuartangoko trikuharriak:*

UPV/EHUko A. Alday irakaslearekin lankidetzan, zundaketa arkeologikoak egiten dira inguruko eremuetan, balizko habitat eremuen bila. Ez da emaitza positiborik izan.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE  
**Programa:** 336700 PATRIMONIO  
ARQUEOLÓGICO Y  
PALEONTOLÓGICO

- Implementación del plan de comunicación para Iruña-Veleia: RR.SS. y Newsletter.
- Diseño y producción de una exposición de calle.
- Sesiones de reconstrucción histórica.
- Puesta en marcha de audioguías.
- Digitalización de piezas de Iruña-Veleia.
- Realización de Tour Virtual.
- Redacción de documento técnico para la señalización del yacimiento.
- A lo largo del año, además, se han mantenido la apertura al público y la oferta de visitas guiadas concertadas gratuitas, con lo que los visitantes recibidos en 2023 han sido 3.395 (un 12% menos que en 2022).
- Se han desarrollado diversas acciones divulgativas puntuales en el marco de las Jornadas Europeas de Patrimonio.

*Planificación Iruña-Veleia 2025-2035:*

Aún no se han realizado acciones específicas dentro de esta línea.

### **Acción 2.2. Proyectos de investigación y conservación de monumentos megalíticos (dólmenes, túmulos y menhires) y cuevas:**

*Dolmen de Sorginetxe:*

Antes los problemas de conservación y estabilidad detectados, se ha puesto en marcha un proyecto de conservación en colaboración con el profesor L.M. Martínez Torres, de la UPV/EHU. Se ha actualizado la documentación geométrica del monumento para detectar y evaluar patologías y movimientos, y se han efectuado trabajos de estabilización para garantizar la seguridad de la estructura.

*Dólmenes de Kuartango:*

En colaboración con el profesor A. Alday, de la UPV/EHU, se efectúan sondeos arqueológicos en zonas de aledañas a la búsqueda de espacios de posible hábitat sin resultados positivos.

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA  
**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA  
ETA PALEONTOLOGIKOA

### *Historiaurreko apaingarriak dituzten haitzuloak:*

Kantabriako Unibertsitateko D. Garate irakaslearekin batera, Arabako Lurralde Historikoko haitzulo edo harpe apainduetako historiaurreko aztarnategietarako jarduketa proposamena definitu da.

### *Historiaurreko okupazioa duten haitzuloak:*

Espeleologiako hainbat talderekin lankidetzan, Eskutxi, Los Goros eta Basotxoko haitzuloak kontrolatzeko eta ebaluatzeko bisitak egin dira.

### **2.3. ekintza. Esku hartzeak kategoría bereziko edo ertaineko zona arkeologikoetan**

#### *La Hoyako herrixka:*

2022an hasitako proiektuari jarraipena eman zaio:

- Lanen lehen fasea amaitu da, I. Iparraldeko Sektorea, II. eta III. sektoreak izeneko aztarnategiko eremuak arkeologia-erreserbako eremu gisa estaliz.
- Aztarnategiaren irisgarritasun kognitiboa hobetu da, interpretazio zentroan ikus-entzunezko azalpen edukiak egokituz eta ikuspen baldintzak hobetuz.
- La Hoyako nekropoliaren memoria idaztea bultzatzen jarraitzen da.
- Piñuelasko nekropoliaren balorazioa egin da, hura mugatzeko.

4.880 bisitari izan ditu, aurreko urteko ia berak.

#### *Angostinako San Bartolome ermitako hilarri erromatarrak:*

Baselizan obrak egin behar direnez eta hormetan erromatarren garaiko hainbat hilarri daudelako interesekoa denez, eraikinaren 3D dokumentazio osoa egitea agindu da, hilarriak barne.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE  
**Programa:** 336700 PATRIMONIO  
ARQUEOLÓGICO Y  
PALEONTOLÓGICO

### *Cuevas con decoración prehistórica:*

Se ha definido junto con el profesor D. Garate, de la Universidad de Cantabria, la propuesta de actuación para los yacimientos prehistóricos en cueva o abrigo decorados del Territorio Histórico de Álava.

### *Cuevas con ocupación prehistórica:*

En colaboración con diferentes grupos de espeleología se han efectuado visitas de control y evaluación a las cuevas de Eskutxi, Los Goros y Basotxo.

### **Acción 2.3. Intervenciones en zonas arqueológicas de categoría especial y media**

#### *Poblado de La Hoya:*

Se ha dado continuidad al proyecto iniciado en 2022:

- Se ha concluido la primera fase de los trabajos, mediante la cubrición como zona de reserva arqueológica expositiva las zonas del yacimiento denominadas Sector I Norte, Sector II y III.
- Se ha mejorado la accesibilidad cognitiva del yacimiento mediante la adecuación de los audiovisuales explicativos en el centro de interpretación y la mejora de las condiciones de visionado.
- Se continúa impulsando la redacción de la memoria de la Necrópolis de La Hoya.
- Se ha realizado la valoración de la Necrópolis de Piñuelas para su delimitación.

El número de visitantes recibidos ha sido de 4.880, prácticamente los mismos que en el año anterior.

#### *Estelas romanas de la ermita de San Bartolomé de Angostina:*

Ante la necesidad de realizar obras en la ermita y dado su interés por contener en sus muros varias lápidas de época romana, se encarga la documentación 3D completa del edificio, lápidas incluidas.

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA  
**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA  
ETA PALEONTOLOGIKOA

### 2.4. ekintza. Natura ondarearen inguruko azterlanak eta proiektuak

Arabako Natura Zientzien Museoan ikerketa jarduera garatzen jarraitu da. 1.734 erregistro berri informatizatu dira, eta bildumetara 9.065 espezie berri, 221 mota eta 2.525 figuratu gehitu dira. Gainera, Urizaharreko eta El Hayal de Guineako anbar piezen material paleontologikoa landu da.

### 2.5. ekintza. Bisita daitezkeen aztarnategi arkeologikoak mantentzea eta garbitzea

Aurreko urteetan bezala, bi garbiketa kanpaina egin dira, bata uztaileen amaieratik abuztuaren hasierara, eta bestea azaroan. Turismoaren ikuspegitik garrantzitsuztat jotako 33 elementu edo aztarnategiren gainean lan egin da. Lan guztiak kontrol arkeologikoaren pean egin dira.

## 3. HELBURUA.- Arabako ondare arkeologiko eta paleontologikoari buruzko foru sustapenez kanpoko proiektuei laguntza ematea.

Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren beste helburu bat ere bada, eta, zalantzarik gabe, ikerketa arkeologikoa garatzen eta Arabako kultura ondarearen ezagutza sustatzen laguntzen du.

### 3.1. ekintza. Ikerketa arkeologiko edo paleontologikoko jarduerak finantzatzen laguntzea.

Pertsona edo talde ikertzaileen ekimen partikularrak diren Arabako ikerketa arkeologiko eta paleontologikoko proiektuetarako laguntza ekonomikoa. Bost proiektu, 21.020,95 €-ko baterako inbertsioarekin, Los Cascajoseko aztarnategietan (tobera, Berantevilla), Entziako Partzuergoan, Villabuenako balizko dolarean, Berbeian (auzoa, Gaubea) eta Hereñako tumuluan (Erriberabeitia).

### 3.2. ekintza. Arabako kultura ondareari buruzko ikerketa zientifikoak zabaltzea eta argitaratzea.

Arabako kultura ondareari buruzko ezagutza

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE  
**Programa:** 336700 PATRIMONIO  
ARQUEOLÓGICO Y  
PALEONTOLÓGICO

### Acción 2.4. Estudios y proyectos de Patrimonio Natural

Se ha continuado desarrollando la actividad investigadora en el Museo de Ciencias Naturales de Álava. Se han informatizado 1.734 registros nuevos, incrementándose las colecciones en 9.065 nuevas especies, 221 tipos y 2.525 figurados. Además, se ha trabajado sobre material paleontológico de las piezas de ámbar de Peñacerrada y de *El Hayal de Guinea*.

### Acción 2.5. Mantenimiento y limpieza de yacimientos arqueológicos visitables

Como en años anteriores se han realizado dos campañas de limpieza, una entre finales de julio y principios agosto, y la otra en noviembre. Se ha trabajado sobre 33 yacimientos o elementos considerados relevantes desde un punto de vista turístico. Todos los trabajos se han efectuado bajo control arqueológico.

## OBJETIVO 03.- Apoyar a proyectos de promoción no foral sobre patrimonio arqueológico y paleontológico de Álava.

Constituye, también, otro de los objetivos importantes del Servicio de Museos y Arqueología y contribuye, sin duda alguna, al desarrollo de la investigación arqueológica y al conocimiento del patrimonio cultural alavés.

### Acción 3.1. Colaboración en la financiación de actividades de investigación arqueológica o paleontológica.

Apoyo económico a proyectos de investigación arqueológica y paleontológica de Álava que responden a iniciativa particular de personas o equipos investigadores. Cinco proyectos, con una inversión conjunta de 21.020,95 €, en los yacimientos de Los Cascajos (Tobera, Berantevilla), Parzonería de Entzia, posible lagar en Villabuena, Berbeia (Barrio, Valdegovía), y en el túmulo de Hereña (Ribera Baja).

### Acción 3.2. Difusión y publicación de investigaciones científicas sobre patrimonio cultural de Álava.

Otro de los instrumentos claves para la difusión

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA  
**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA  
ETA PALEONTOLOGIKOA

hedatzeko beste tresna ezinbesteko bat da indusketen ikerketa lanak eta memoriak argitaratzea.

- *Pariburu (Durana, Álava): una arquitectura singular en la estación megalítica de Vitoria (A. Alday, koordinatzailea)*. Memorias de Yacimientos Alaveses, 18. zk.
- *Iruña-Veleiako gida arkeologikoa (C. Ortiz de Urbina, A. Martínez, B. López)*. Euskarazko eta gaztelaniazko edizioa.

### 3.3. ekintza. Aztarnategi eta monumentu arkeologikoen bisitak zabaltzea eta sustatzea.

Arabako Lurralde Historikoko ondare arkeologikoa bisitatzea eta ezagutzea errazteko beste jarduketa garrantzitsuetako bat da.

Mota guztietako dibulgazio jarduerak antolatzean, material didaktikoak sortzean edo norabide seinaleak edo formatu desberdinetako informazio seinaleak instalatzean datza.

*Dibulgazio jarduerak: ekainean Europako Arkeologia Jardunaldiak antolatu ziren. BIBAT Museoko jarduerak eta Iruña-Veleiako bisita bereziak uztartu ziren. Gainera, udazkenean Kultura Ondarearen Europako Jardunaldiak antolatu ziren. Ondarea bizirik / Patrimonio Vivo, 14 jarduerarekin eta partaidetza handiarekin. Horietatik 10 interes arkeologikoko ondasunei buruzkoak izan ziren.*

*Seinaleak: Kexaako monumentu multzora joateko norabide seinaleak jarri dira, eta La Hoya, Legaire eta Los Llanos eta El Encinal trikuharrietako informazio panelak berriro dira.*

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Oro har, 2023ko ekitaldirako hasieran aurreikusitako helburuak modu egokian lortu direla esan daiteke.

Jarraian, xehetasun handiagoz jaso dugu.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE  
**Programa:** 336700 PATRIMONIO  
ARQUEOLÓGICO Y  
PALEONTOLÓGICO

del conocimiento sobre patrimonio cultural en Álava es la publicación de trabajos de investigación y memorias de excavaciones:

- *Pariburu (Durana, Álava): una arquitectura singular en la estación megalítica de Vitoria (A. Alday, coordinador)*. Memorias de Yacimientos Alaveses, nº 18.
- *Guía arqueológica de Iruña-Veleia (C. Ortiz de Urbina, A. Martínez, B. López)*. Edición en euskera y castellano.

### Acción 3.3. Difusión y promoción de la visita de yacimientos y monumentos arqueológicos.

Es otra de las actuaciones relevantes para facilitar la visita y el conocimiento del patrimonio arqueológico del Territorio Histórico de Álava.

Consiste tanto en la organización de actividades divulgativas de todo tipo, como en la generación de materiales didácticos o en la instalación de señalética direccional o informativos de diverso formato.

*Actividades divulgativas:* en junio se organizaron las *Jornadas de Europeas de Arqueología* en las que se combinaron actividades en el Museo BIBAT con visitas especiales en Iruña-Veleia. Además, en otoño se organizaron las *Jornadas Europeas de Patrimonio Cultural*. *Ondarea bizirik / Patrimonio Vivo*, con 14 actividades, con gran éxito de participación, 10 de las cuales se centraron sobre bienes de interés arqueológico.

*Señalética:* se han instalado señales direccionales para conducir al Conjunto Monumental de Quejana y se han renovado los paneles informativos de La Hoya, Legaire y los dólmenes de Los Llanos y El Encinal.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

En general se puede afirmar que los objetivos previstos inicialmente para el ejercicio de 2023 se han alcanzado de forma satisfactoria.

A continuación, se expresa su ejecución con mayor grado de detalle.

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA  
**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA  
ETA PALEONTOLOGIKOA

### 1. HELBURUA. Arabako ondare arkeologikoa eta paleontologikoa kudeatzea

#### 1.1. ekintza. Arabako arkeologia eta paleontologia jardueren araudi berria idaztea

##### 1.1.1. Arabako arkeologia eta paleontologia jardueren araudi berria

Egokitzapen juridikoaren eta behin betiko idazketaren zain.

#### 1.2. ekintza. Ondare arkeologiko eta paleontologikoaren kudeaketako txosten teknikoak ematea.

##### 1.2.1. Eragin arkeologikoko txostenak

642 txosten arkeologiko idatzi dira mota guztietako beste hainbeste espedienterentzat.

##### 1.2.2. Proiektu arkeologikoak baimentzea

Jarduketa arkeologiko egiteko 123 baime aztertu eta izapidetu dira (prospekzioak, zundaketak, indusketak, obra kontrolak eta altxaera irakurketak).

#### 1.3. ekintza. Jarduketa arkeologikoen kostuaren % 50eko dirulaguntzak kudeatzea

6/2019 Legearen 67. artikulua partikularrei eta enpresei legeak aginduta egin behar diren arkeologia jarduketan kostuaren % 50 ordaintzera behartzen du Arabako Foru Aldundia.

##### 1.3.1. Izapidetutako arkeologia jarduketan kostuaren % 50eko dirulaguntzak.

Guztira bederatzi espediente izapidetu dira. Zortzi partikularrenak izan dira, eta bat enpresena.

##### 1.3.2. Izapidetutako arkeologia jarduketan kostuaren % 50eko dirulaguntzetan emandako aurrekontuaren ehunekoa.

Partikularrentzako eta enpresentzako aurrekontu osoaren % 100 gastatu da.

### 02. HELBURUA.- AFAk ondare arkeologikoa eta paleontologikoa ikertzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE  
**Programa:** 336700 PATRIMONIO  
ARQUEOLÓGICO Y  
PALEONTOLÓGICO

### OBJETIVO 1. Gestionar el Patrimonio arqueológico y paleontológico de Álava

#### Acción 1.1. Redacción de un nuevo Reglamento de Actividades Arqueológicas y Paleontológicas para Álava

##### 1.1.1. Nuevo Reglamento de Actividades Arqueológicas y Paleontológicas

Pendiente de adaptación jurídica y de redacción definitiva.

#### Acción 1.2. Emisión de informes técnicos de gestión del patrimonio arqueológico y paleontológico.

##### 1.2.1. Informes de afección arqueológica

Se han redactado 642 informes de carácter arqueológico para otros tantos expedientes de todo tipo.

##### 1.2.2. Autorizaciones de proyectos arqueológicos

Se han analizado y tramitado 123 autorizaciones para actuaciones arqueológicas (prospecciones, sondeos, excavaciones, controles de obra y lecturas de alzados).

#### Acción 1.3. Gestión de subvenciones del 50% del coste de actuaciones arqueológicas

El artículo 67 de la Ley 6/2019 obliga a la DFA a satisfacer a particulares y a empresas el 50% del coste de las actuaciones arqueológicas que deban ejecutar por prescripción legal.

##### 1.3.1. Subvenciones del 50% del coste de actuaciones arqueológicas tramitadas.

Se han tramitado un total de nueve expedientes, de los que ocho han correspondido a particulares y uno a empresas.

##### 1.3.2. Porcentaje del presupuesto concedido en subvenciones del 50% del coste de actuaciones arqueológicas tramitadas.

Se ha gastado el 100% del total presupuestado para particulares y empresas.

### OBJETIVO 02.- Impulsar y promocionar proyectos propios de DFA de investigación, conservación y

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA  
**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA  
ETA PALEONTOLOGIKOA

### dituen proiektu propioak bultzatzea eta sustatzea

AFAk zuzenean sustatzen dituen proiektuei jarraipena ematea, kultura ondasun arkeologikoak, batez ere, kategoria berezikoak, kontserbatu eta zabaltzeko.

#### 2.1. ekintza. Iruña-Veleia.

##### 2.1.1. Aurreikusitako jarduketara programari jarraipena ematea.

1 txosten. 2024ko urtarrilaren 10ean, Iruña-Veleiarako jasotako dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu zitzaion Eusko Jaurlaritzari, eta, oro har, balantze ona egin zen, Next Generation funtsekin aurreikusitako helburu guztiak lortu baitira. AFAREN eta Eusko Jaurlaritzaren baterako finantzaketa, berriz, % 72an gauzatu da; izan ere, aurreikusitako prospekzio geofisikoko lanak ezin izan dira kontratatu, izapidetze arazoak direla medio.

#### 2.2. ekintza. Monumentu megalitikoak eta haitzuloak ikertzeko eta kontserbatzeko proiektuak:

##### 2.2.1. Mantentze eta kontserbazio beharren analisia.

1 txosten. Sorginetxeko trikuharrian ustekabeko egonkortasun arazoak antzeman direnez, premia garatu behar izan da dokumentazio, diagnostiko eta egonkortze proiektu bat. Presazko garapenak aurreikusitako gainerako jarduketak mugatu ditu.

##### 2.2.2. Labar pinturei buruzko azterlanak zabaltzea.

Aurreiazko plangintza eta kontrol lanak baino ez dira egin.

##### 2.2.3. Sustatutako proiektuen kopurua

3 proiektu. Sorginetxeko trikuharrian ez ezik, Kuartangoko trikuharrien inguruan ere zundaketa egiaztatzaileak egin dira, eta historiaurreko okupazioa duten hainbat haitzulo kontrolatzeko eta ikuskatzeko bisitak egin dira.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE  
**Programa:** 336700 PATRIMONIO  
ARQUEOLÓGICO Y  
PALEONTOLÓGICO

### difusión del patrimonio arqueológico y paleontológico

Actividad en proyectos que promueve directamente la DFA para la conservación y difusión de Bienes Culturales arqueológicos, especialmente los de Categoría Especial.

#### Acción 2.1. Iruña-Veleia.

##### 2.1.1. Dar continuidad al programa de actuaciones previsto.

1 informe. Con fecha 10 de enero de 2024 se presenta justificación al Gobierno Vasco por la subvención recibida para Iruña-Veleia con un balance en general satisfactorio, puesto que se han alcanzado la totalidad de los objetivos previstos con los fondos *Next Generation*, mientras que la financiación conjunta DFA y Gobierno Vasco se ha ejecutado al 72%, al no poderse contratar los trabajos de prospección geofísica previstos, por problemas de tramitación.

#### Acción 2.2. Proyectos de investigación y conservación de monumentos megalíticos y cuevas:

##### 2.2.1. Análisis de necesidades de mantenimiento y conservación.

1 informe. La detección imprevista de problemas de estabilidad en el dolmen de Sorginetxe ha obligado a desarrollar de forma urgente un proyecto de documentación, diagnóstico y estabilización. Su desarrollo urgente ha limitado el resto de las actuaciones previstas.

##### 2.2.2. Difusión de los estudios sobre pinturas rupestres.

Únicamente se han efectuado trabajos preliminares de planificación y control.

##### 2.2.3. Número de proyectos promovidos.

3 proyectos. Además de en el dolmen de Sorginetxe, se han efectuado sondeos comprobatorios en el entorno de los dólmenes de Kuartango y visitas de control y supervisión a diversas cuevas con ocupación prehistórica.

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA  
**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA  
ETA PALEONTOLOGIKOA

### 2.3. ekintza. Esku hartzeak kategoría bereziko edo ertaineko zona arkeologikoetan

#### 2.3.1. La Hoya herrixka: egindako jarduketak.

1 txosten, herrixkako indusketa sektore sekundarioak babesteko eta finkatzeko lanei buruz.

#### 2.3.2. Beste proiektu posible batzuen analisisa.

1 proiektu. Angostinako (Bernedo) San Bartolome basilizaren eta haren fabrikari sartutako hilarri erromatarren dokumentazio geometrikoa.

### 2.4. ekintza. Arabako Natura Zientzien Museoan ikerketa jarduera sustatzea

1.734 erregistro berri informatizatu dira, eta bildumetara 9.065 espezie berri, 221 mota eta 2.525 figuratu gehitu dira.

#### 2.4.1. Arabako Natura Zientzien Museoko bildumari gehitu zaizkion erreferentzia berrien ehunekoak.

Moten % 1,73ko hazkundea, zenbaki handia izan arren, ehuneko txikia da museoaren bilduma osoari dagokionez.

### 2.5. ekintza. Kultura ondasunak mantentzea eta garbitzea

#### 2.5.1. Esku hartutako aztarnategi arkeologikoen kopurua.

33 elementu eta/edo aztarnategitan esku hartu da, aurreko urteetan bezala ia-ia.

## 3. HELBURUA. Arabako ondare arkeologiko eta paleontologikoari buruzko foru sustapenez kanpoko proiektuei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea.

### 3.1. ekintza. Ikerketa arkeologiko edo paleontologikoko proiektuei laguntza ekonomikoa ematea.

#### 3.1.1. Lagundutako ikerketa proiektuak.

Bost proiektu, 21.020,95 €-ko baterako

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE  
**Programa:** 336700 PATRIMONIO  
ARQUEOLÓGICO Y  
PALEONTOLOGICO

### Acción 2.3. Intervenciones en zonas arqueológicas de categoría especial y media

#### 2.3.1. Poblado de La Hoya: actuaciones desarrolladas.

1 informe de trabajos para la protección y consolidación de sectores secundarios de excavación en el poblado.

#### 2.3.2. Análisis de otros posibles proyectos.

1 proyecto. Documentación geométrica de la ermita de San Bartolomé de Angostina (Bernedo) y de las estelas romanas insertas en su fábrica.

### Acción 2.4. Fomento de la actividad investigadora en el Museo de Ciencias Naturales de Álava

Se han informatizado 1.734 registros nuevos, incrementándose las colecciones en 9.065 nuevas especies, 221 tipos y 2.525 figurados.

#### 2.4.1. Porcentaje de incremento de nuevas referencias a la Colección del Museo de Ciencias Naturales de Álava.

El incremento de 1,73% de tipos, pese a su importancia numérica, supone un porcentaje escaso sobre la globalidad de la colección del Museo.

### Acción 2.5. Mantenimiento y limpieza de Bienes Culturales

#### 2.5.1. Número de yacimientos arqueológicos intervenido.

Se ha intervenido sobre 33 elementos y/o yacimientos, prácticamente los mismos que en años precedentes.

## OBJETIVO 3. Apoyar técnica y económicamente a proyectos de promoción no foral sobre patrimonio arqueológico y paleontológico de Álava.

### Acción 3.1. Apoyo económico a proyectos de investigación arqueológica o paleontológica.

#### 3.1.1. Proyectos de investigación apoyados.

Cinco proyectos, con una inversión conjunta de

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 70 KULTURA ETA KIROLA  
**Programa:** 336700 ONDARE ARKEOLOGIKOA  
ETA PALEONTOLOGIKOA

inbertsioarekin.

### **3.2. ekintza. Arabako ondare arkeologiko eta paleontologikoari buruzko ikerketa zientifikoak zabaltzea eta argitaratzea.**

#### *3.2.1. Argitalpen kopurua:*

2 argitalpen. Memorias de Yacimientos Alaveses, 18. zk. Pariburu (Durana, Álava): una arquitectura singular en la estación megalítica de Vitoria (A. Alday, coordinador) eta Iruña-Veleiako gida arkeologikoa (C. Ortiz de Urbina, A. Martínez, B. López).

### **3.3. ekintza. Aztarnategi eta monumentu arkeologikoen zabalkundea eta hedatzea.**

#### *3.3.1. Zabalkunderako antolatu diren jarduerak.*

10 jarduera antolatu dira. Bereziki nabarmentzekoak dira Europako Arkeologia Jardunaldien eta Ondarearen Europako Jardunaldien testuinguruan antolatutako jarduerak.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 70 CULTURA Y DEPORTE  
**Programa:** 336700 PATRIMONIO  
ARQUEOLÓGICO Y  
PALEONTOLÓGICO

21.020,95 €.

### **Acción 3.2. Difusión y publicación de investigaciones científicas sobre patrimonio arqueológico y paleontológico de Álava.**

#### *3.2.1. Número de publicaciones:*

2 publicaciones. Memorias de Yacimientos Alaveses, nº 18 *Pariburu (Durana, Álava): una arquitectura singular en la estación megalítica de Vitoria* (A. Alday, coordinador) y *Guía arqueológica de Iruña-Veleia* (C. Ortiz de Urbina, A. Martínez, B. López).

### **Acción 3.3. Difusión y divulgación de yacimientos y monumentos arqueológicos.**

#### *3.3.1. Actividades de difusión organizadas.*

10 actividades organizadas. Destacan especialmente las actividades organizadas en el contexto de las *Jornadas Europeas de Arqueología* y de las *Jornadas Europeas de Patrimonio*.